

HERNANI / Liburuak trukatzeko gunea jarri du Liburutegiak

Edozeinek eraman dezake behar ez duen libururen bat eta, era berean, intereseko zerbait ikusiz gero, hartzeko aukera dago.

Udal Liburutegian Liburutruk izeneko gune berria jarri dute martxan. Liburuak trukatzeko espazioa edo gunea da. Honako helburuekin jarri dute martxan: «Gustoko liburuak, behar ez ditugunak, beste jendearekin trukatzea. Irakurketak iradokitzeko beste bide bat irekitzea, eta berrerabilpena bultzatzea, birziklatze modu bat den neurrian», azaldu dute.

Egoera onean daude liburuak

Herritar guztiek erabili dezakete zerbitzu hau. Edonork, interesgarria den, egoera onean dagoen eta jada behar ez duen libururen bat baldin badu, bertara eraman dezake. Eta era berean, bertan bere intereseko zerbait ikusten badu, hartzeko aukera dauka. Gunea, Liburutegiko lehenengo eta bigarren pisuen arteko eskailburuan dago.